

## 5. DIRU-SARRERAK

### Diru-sarrera nagusiak:

- **Zaborrontzien salmenta:** Gure diru-sarrera edo diru-iturri nagusia salmentak izango dira. Salmenta hori sektore edo segmentu ezberdinei salduko diegu:

→ **Bezero konbentzionalak:** Bezero konbentzionalak **familiak** dira. Hauek dira erosle ohikoenak. Txartelez, *Bizum* edo *Paypal* bidez, zein fisikoki ordaindu ahal izango da.

→ **Sektore publikoa:** Sektore publikoa **erosle estrategiko** oso garrantzitsua izan daiteke, errentagarritasun handia eman diezagukeena. Sektore publikoak transferentzia bidez ordainduko digu. Sektore publikoan honakoak bereizi ditzakegu:

- ❖ Erabilera publikoko eraikinak (Institutuak, kiroldegia...)
- ❖ Erabilera politikoko eraikinak (diputazioak, udaletxeak, parlamentua...)

### Diru-sarrera sortzeko modu anitzak izango ditu gure enpresak:

- **Erabilera saria:** Hau da, bezeroek gure produktua erosten badute aukera izango dute sariak jasotzeko. Horregatik, erosleak gure produktua **erostera bultzatuko** ditugu.
- **Harpidetza saria:** Hau da, bezeroak gure web orrialdera harpidetzen badira, deskontuak, opariak, sariak eta halakoak lortzeko aukera izango dute. Horregatik, halako kontuak erakargarriak direnez, **erosleak gure produktua erostera bultzatuko** ditugu.

---

### Prezioak horrela sailkatuko genituzke:

- **Prezio finkoak:** Prezio finkoak aldatzen ez direnak dira, beti berdin mantentzen direnak. Gure kasuan, **modelo simple edo "estandarren" prezioa** da finkoa. Zehazki, 45.00 €.
- **Prezio dinamikoak:** Gure prezio dinamikoak **zaborrontzi pertsonalizatuena** dira; izan ere, produktua pertsonalizatu egiten dugu bezeroaren arabera. Horrek, jakina, prezio altuagoa eskatzen du, pertsonalizazioak kostu gehigarria suposatzen diolako enpresari.